

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ISILEKO ZORPEKOAK KONTUAN</b>	<b>EPIGRAFEA:</b>  <b>84</b>
	Indarrean data honetatik: 2024/06/26	1. orria 4(e)tik

## ORDAINKETA ZERBITZUAK

### 1. Kontuen mantentze-komisioa

Produktua	Mantentze-komisioa
<p><b>A Kontua eta Plana / Gaztedi / Gaztea Etxebizitza Kontua / Gazteen Etxebizitza Kontua / Net Batubatu Plana / Batubatu Plan Solidarioa / Onlinekoa / Plan Erraza</b></p>	<p><b>Mantentze-komisiorik gabe</b> aktibo dauden kontuetan (*)</p>
<p><b>Aurrezki Kontua eta Ordainketa Bereziko Kontuak</b> pertsona fisikoentzat</p> <p><i>Produktu horiek kontratatzeak zerbitzu hauek biltzen ditu:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li><i>Kontuaren bidez <b>txekeen negoziazioagatik eta konpentsazioagatik sortutako</b> komisioaren hoberia baldin eta txekeak eurotan eta Espainiako finantza-erakunde batean helbideratuta badaude.</i></li> <li><i><b>SEPA transferentzia estandarrak eurotan igortzeagatik</b> sortutako komisioaren hoberia, transferentzia horiek kutxazainaren, Online Bankuaren edo Banku mugikorraren bidez eginda daudenean.</i></li> <li><i>Igorpen-komisioaren eta Kutxabanken <b>Visa Dual</b> txartel baten mantentzea salbuetsita egongo da kontuaren titular bakoitzarentzat.</i></li> </ul>	<p><b>Kontuaren titular batek gutxienez baldintza hauetakoren bat betetzen badu, kontu horren mantentze-komisioaren % 100eko hoberia emango zaio. Hala ez balitz, aktibo dauden kontuetan (*), hiru hilean behin 35€-ko mantentze-komisioa aplikatuko da:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>30 urte bitarte izatea (30 barne).</li> <li>Kutxabanken pentsio-plan indibidualen, inbertsio-funtsen edo aurreikuspen-planen baturan hiruhilekoan gutxienez 20.000€ euroko batezbesteko saldoa mantentzea, edo hiruhilekoan 30.000 € euroko edo gehiagoko batez besteko saldoa izatea Kutxabanken aurrezki-kontuen edo -planen, epekako gordailuen, inbertsio-funtsen, aurreikuspen-planen edo pentsio-plan indibidualen baturan.</li> <li>31 eta 34 urte artean izatea betiere baldintza hauek betez gero: <ul style="list-style-type: none"> <li>Kutxabanken Online Bankuan, Banku Mugikorrean edo enpresentzako Online Bankuan alta-egoeran egotea.</li> <li>Kutxabanken hilean gutxienez 600 eurokoa den nomina edo langabezia-prestazioa helbideratuta izatea, edo hilean gutxienez 400 euroko zenbatekoa duen gizarte-ongizatearen pentsioa edo prestazioa edo autonomoen ordainagiria izatea helbideratuta, edo Kutxabanken hiru hilean batez besteko 10.000 euroko saldoa edo altuagoa izatea inbertsio-funtsen, aurreikuspen-planen edo pentsio-plan indibidualen baturan.</li> </ul> </li> <li>35 eta 64 urte artean izatea, betiere baldintza hauek betetzen baditu: <ul style="list-style-type: none"> <li>Kutxabanken Online Bankuan, Banku Mugikorrean edo enpresentzako Online Bankuan alta-egoeran egotea.</li> <li>Hilean gutxienez 600 eurokoa den nomina edo langabezia-prestazioa helbideratuta izatea, edo hilean gutxienez 400 euroko zenbatekoa duen gizarte-ongizatearen pentsioa edo prestazioa edo autonomoen ordainagiria izatea helbideratuta, edo Kutxabanken hiru hilean batez besteko 10.000 euroko saldoa edo altuagoa izatea inbertsio-funtsen, aurreikuspen-planen edo pentsio-plan indibidualen baturan.</li> </ul> </li> </ul> <p>Gainera, <b>eskakizun osagarri</b> hauetako bat bete beharko du gutxienez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Inbertsio-funtsetan, aurreikuspen-planetan edo banakako pentsio-planetan kuota aktiboa izatea Kutxabanken, hiruhilekoko batez besteko saldoa gutxienez 5.000 eurokoa izanik.</li> <li>Kutxabanken gutxienez aseguru bat kontratatuta izatea.</li> <li>Likidazioaren hiruhilekoan gutxienez 5 erosketa egitea Kutxabaneko txartelekin, edo aktibo dauden txartel guztien fakturazio garbia 2.400 eurokoa edo handiagoa izatea likidazioaren aurreko 12 hilabeteetan.</li> </ul> <p>Aurrekoa albo batera utzi gabe, gutxienez baldintza gehigarrietako bat betetzen ez bada, <b>hiruhilekoan 10,00 € -ko mantentze-komisio partzial bat aplikatuko zaio kontuari.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>65 urte edo gehiago izatea, baldin eta hilean gutxienez 600 eurokoa den nomina edo langabezia-prestazioa helbideratuta badu, edo hilean gutxienez 400 euroko zenbatekoa duen gizarte-ongizatearen pentsioa edo prestazioa edo autonomoen ordainagiria badu helbideratuta, edo Kutxabanken hiru hilean batezbesteko 10.000 euroko saldoa edo altuagoa badu inbertsio-funtsen, aurreikuspen-planen edo pentsio-plan indibidualen baturan.</li> </ul>

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ISILEKO ZORPEKOAK KONTUAN</b>	<b>EPIGRAFEA:</b> <b>84</b>
	Indarrean data honetatik: 2024/06/26	2. orria 4(e)tik

Produktua	Mantentze-komisioa
<p><b>Nekazaritzako Negozio Kontua</b></p> <p><i>Produktua kontratatzeak zerbitzu hauek biltzen ditu:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Txekeen negozioiazogatik eta konpentsazioazogatik</b> sortutako komisioaren hoberia kontu beraren bidez baldin eta eurotan eta Estatuko finantza-erakunde batean helbideratuta badaude.</li> <li>• <b>SEPA transferentzia estandarrak eurotan igortzeazogatik</b> sortutako komisioaren hoberia, transferentzia horiek kutxazainaren, Online Bankuaren edo Banku mugikorraren bidez eginda daudenean.</li> <li>• <b>Online Bankuaren (partikularra edo enpresakoa)</b> kontratua izateazogatiko komisioaren hoberia.</li> <li>• <b>Kutxabanken Visa Dual Profesionala, Visa Dual Enpresa edo Visa Classic Enpresa txartela mantentzeazogatiko eta igortzeazogatiko komisioaren hoberia, titular bakoitzeko</b> (titularra pertsona juridikoa bada, txartel titularra eta onuradun bat).</li> </ul> <p><i>Horrez gain, hilean zehar gutxienez eragiketa bat egin bada kontuari lotutako ST batean, <b>ST horren mantentze-zerbitzua doan emango da.</b></i></p>	<p><b>Mantentze-komisioa hilean 25 €-koa izango da aktibo dauden kontuetan (¹). Kontuaren titularren batek baldintza hauetako edozein betetzen badu, Kontuari hilean 10 €-ko mantentze-komisio partziala aplikatuko zaio:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Kutxabankek Online Bankua edo Enpresentzako Online Bankua kontratatuta izatea eta kontratu horri lotutako telefono mugikorra izatea.</li> <li>• Autonomoen ordainagiria, mutua profesionalarena, nekazaritzako erregimen bereziarena edo Gizarte Segurantzako erregimen orokorrarena Kontuan helbideratuta izatea edo azken hiruhilekoan BEZaren edo PFEZaren ordainketari dagokion mugimendu bat gutxienez egin izana, edo kontuaren bidez gutxienez hiru nomina ordaintzea, guztira 1.800 eurokoa edo hortik gorakoa bada.</li> <li>• Horrez gain, baldin eta Kontuari lotutako Kutxabanken Visa Dual Profesionala, Visa Dual Enpresa edo Visa Classic Enpresa txartela izanez gero, Kontuko titularren txartel guztiak kontuan hartuta, likidazioaren hilabeteetan 100 € -ko edo gehiagoko edo likidazioaren aurreko 12 hilabeteetan 1.200 € -ko fakturazio garbia izan beharko du. Kontuaren titularra pertsona juridikoa balitz, fakturazio konputagarria txartel nagusikoa izango da (haren onuradunak diren txartel guztietako fakturazioa barne).</li> </ul> <p>Kontuaren titularretako batek behintzat aurretik deskribatutako baldintzez gain jarraian adierazitako baldintzetako bat betetzen badu, kontuaren <b>mantentze-komisioaren % 100eko hoberia jasoko du:</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Hilean 600 euroko edo hiruhilekoan 1.800 euroko diru-sarrerak edo altuagoak izatea Kontuan. Diru-sarreratzat hartuko dira kontu horretan egindako abonamendu guztiak, eta baztertuta geratuko dira eskudirutan egindako ordainketak eta norberaren ordainketak.</li> <li>- Mailegua finantzatzeko eragiketa bat, leasinga, zorro bat, factoringa, confirminga edo atzerriko monetan egindako esportazio eta/edo inportazio finantzaketa kontratatua izatea, eta eragiketa horri dagokion ordainketa egunean izatea.</li> <li>- Kutxabanken gutxienez aseguru bat kontratatuta izatea.</li> <li>- Azken hiru hilabeteetan Merkataritza Kredituaren operazio bat egin izana Kutxabankekin..</li> <li>- Komertzio bakoitzeko gutxienez 2.000 euroko fakturazioa izatea Saltokiko Terminalarekin.</li> <li>- Kutxabanken pentsio-plan indibidualen, inbertsio-funtsen edo aurreikuspen- planen baturan hiruhilekoan gutxienez 20.000 euroko batezbesteko saldoa mantentzea, edo hiruhilekoan 30.000 euroko edo gehiagoko batez besteko saldoa izatea Kutxabanken aurrezki-kontuen edo -planen, epekako gordailuen, inbertsio-funtsen, aurreikuspen-planen edo pentsio-plan indibidualen baturan.</li> </ul>
<p><b>Aurrezki Kontua eta Ordainketa Bereziko Kontuak</b> pertsona juridikoentzat</p> <p><b>Gainerakoak</b></p>	<p><b>Mantentze-komisioa hiruhilekoan 35,00 €-koa izango da aktibo dauden kontuetarako (¹).</b></p> <p>Pertsona juridikoen kontuetan ere aplikatu ahal izango da komisio bat. Komisio hori hiru hilez behin likidatuko da likidatutako aldiko batez besteko saldoaren gainean, eta atal honetan jasotako zenbatekoa ordezkatu du. Aplikatu beharreko zenbatekoa kontratuan jasotakoa izango da.</p>
<p><b>Oinarrizko Ordainketa Kontua</b></p>	<p>Mantentze-komisioa <b>hiru hilean behin 9,00 €-koa</b> izango da, zaurgarritasun-egoeran edo finantza-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen kasuan izan ezik. Azken horien kasuan, komisioa 0 €-koa izango da. (²)</p>

(¹) Kontu aktiboak izango dira azken 13 hilabeteetan gutxienez eragiketa bat egin dutenak. Jarduerarik gabeko kontratuetarako, Kutxabankek komisio handiagoa aplikatu ahal izango du, bezeroari araudian ezarritako epe barruan jakinarazi ondoren (Gaztedi Planetan eta Etxebizitza eta Etxebizitza Gaztea kontuetan izan ezik, horiek %100eko hoberia izaten jarraituko baitute). Aipatutako aldian kontuan eragiketarik egingo ez balitz, mantentze-komisioa honela handituko da jarduerarik gabeko aldiaren arabera: 50€/hiruhilekoan kontua ez-aktibo badago 13 hilabetez; 60€/ hiruhilekoan kontua 49 hilabetez ez-aktibo badago (13 hilabete + 3 urte).

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ISILEKO ZORPEKOAK KONTUAN</b>	EPIGRAFEA:  <b>84</b>
	Indarrean data honetatik:  2024/06/26	3. orria 4(e)tik

75€/ hiruhilekoan kontua 73 hilabetez ez-aktibo badago (13 hilabete + 5 urte); 100€/ hiruhilekoan kontua 133 hilabetez ez-aktibo badago (13 hilabete + 10 urte).

<sup>(2)</sup> Oinarrizko ordainketa-kontua doakoa izan dadin aitortpena lortzeko, nahitaezkoa izango da 2019ko martxoaren 22ko 164/2019 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak betetzea. Errege Dekretu horren arabera, oinarrizko ordainketa-kontuen doako erregimena ezartzen da finantza-bazterkeria arriskua duten edo zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen onurarako

**Oharra:** Kontuaren mantentze-zerbitzua bezeroak kontuarekin eragiketak egiteko eta bertan saldoak gorde ahal izateko Kutxabankek kontua irekita eta aktibo mantentzen duen zerbitzua da. Zerbitzu honek mantentze-komisioa izeneko komisioa kobratzea dakar; gainera, **Oinarrizko Kutxa Zerbitzua** ere barne hartzen du, eragiketa hauekin:

- Bulegoan egindako 5 diru-sarrera hilean, eragiketa leihatila bidezko Kutxa Zerbitzuan egiten denean.
- Bulegoan egindako 300 euroko edo gehiagoko 10 eskudiru ateraldi hilabetean, eragiketa hori leihatila bidezko kutxa-zerbitzuan egiten denean.
- Kutxabanken txeekeen zordunketak kontuaren bulego titularrean.
- Eragiketen eta saldoen kontsulta, Kutxabank Taldearen autozerbitzu-kanalen arabera.
- Zerga-informazioa, bikoiztuak sartu gabe.

Eragiketa leihatila bidezko Kutxa Zerbitzuan egiten denean bulegoan egindako eskudiru-sarrerek eta ateratzeek lehen adierazitako mugak gainditzen badituzte, ez dira Oinarrizko Kutxa Zerbitzuan sartuko; beraz, eragiketa horiek egiteak berazko komisio bat kobratzea ekar dezake. Komisio horren berri behar besteko aurrerapenaz emango da, eta eragiketa horiek egiten diren kontuaren titularr(ar)en kontura izango da, kontuaren mantentze-komisioan aurreikusi gabeko zerbitzu bat ematen den heinean ("*Bulegoan egindako kontzeptudun sarrerak jasotzearen komisioa*" ikusi)

## 2. Administrazio- komisioa

Apunte bakoitzeko 0,45 euroko komisioa jasoko da. Ez da komisio hori jasoko apunte hauekin lotuta:

- Interesen eta komisioen likidazioa dela eta sortutakoak.
- Eskudirutan egindako sarrerak eta diru-ateratzeak.
- Txeekeen zordunketak.

## 3. Isileko zorpekoak ageriko kontu korranteetan eta aurrezki-libretetan

Zorpekoak izateko baimena hautazkoa izaten da bankuarentzat eta, baimena emanez gero, itundutako epeen eta baldintzen arabera, eragiketa mota horietarako bankuak ezarritako interes-tasa publikoa sortuko du.

Kontu korrante eta aurrezki-libretetako isileko zorpekoak kreditu-eragiketatzat joko dira helburu guztietarako eta % 4,50eko komisioa aplikatuko da kontuan likidazio-aldi bakoitzean izan duen saldo zordun handienaren gainean (gutxienekoa 18,00 eurokoa izango da). Komisio hori interesen likidazioekin batera jaso beharko da.

16/2011 Legeak aipatzen dituen kontuetako isileko zorpekoetarako (kontsumorako kredituei buruzkoa), eta 20.4 artikulua xedatutakoa betez, komisioaren aplikazioa, interesarekin batera, ez da diruaren legezko interes-tasa 2,5 aldiz UTBa baino handiagoa izango.

## 4. Zordunketen ostera-lagapeneko komisioa

Helbideratze-aginduak ez baliogabetzeagatik edo zenbatekoarekin ados ez egoteagatik bidegabeko eragiketen ostera-lagapeneko kudeaketa.

Ostera-lagapen bakoitzeko aplikatu beharreko komisioa 3,00 eurokoa izango da.

	<b>ADMINISTRAZIOA, MANTENTZEA ETA ISILEKO ZORPEKOAK KONTUAN</b>	EPIGRAFEA: <b>84</b>
	Indarrean data honetatik: 2024/06/26	4. orria 4(e)tik

## 5. Bulegoan egindako "kontzeptudun" sarrerak jasotzearen komisioa

Kontua bulegoan egindako kontzeptudun sarreraren hartzailea denean, komisio hauek ezarriko dira. Haien sortzapena eta likidazioa hilean behingoa izango da.

HILEKO ERAGIKETA KOPURUA	HILEKO KOMISIOA
0-5 eragiketa	0,00 euro
6-10 eragiketa	5,00 euro
11-20 eragiketa	12,00 euro
21-40 eragiketa	28,00 euro
41-100 eragiketa	80,00 euro
100 eragiketa baino gehiago	450,00 euro

**1. oharra:** Ordainketa-zerbitzu bakoitzean, aplikatu beharreko komisioa dagokion atalean zehaztuta dagoenari indarrean dagoen araudiaren arabera dagokion zerga edo BEZa gehituta ateratzen dena izango da.